

## 2023 – 2024 IKASTURTEAN BERDINEN ARTEKO TUTORETZA- PLANEAN PARTE HARTZEKO IKASLEAK HAUTATZEKO DEIALDIA

### SARRERA

Deialdi honen helburua Gradu hiru mailako bi ikasle hautatzea da, 2023-2024 ikasturtean ikasle tutore gisa parte hartzeko berdinen arteko tutoretza-planean.

“Tutoretzako Ekintza Plana: berdinen arteko tutoretza” ekimenaren helburua honako hau da: *“...unibertsitateko ikasle berrien egokitzapen-premiak asetzea eta ikasle horiek akademikoki, gizaritari begira eta pertsonalki unibertsitatean txertatzeko egin behar duten bidea erraztea. Horretarako, goragoko mailetako ikaskideek daukaten esperientzia baliatuko da”*. Ikasle tutoreak koordinazio-saioak egingo ditu programako irakasle koordinatzaileekin, eta planaren amaieran, egindako jardueri buruzko txosten bat aurkeztuko du.

Ikasle tutore gisa parte hartzen dutenei eta plana amaitzen dutenei **hiru ECTS kreditura arte** aitortuko zaizkie, eta, halaber, akademia-kudeaketako araudiak ikasleen ordezkariatzat jasotzen dituen eskubide berberak izango dituzte.

Berdinen arteko tutoretza-programaren informazio guztia UPV/EHUren web orrian duzue eskuragarri eta esteka honen bidez sar zaitezke:

<http://www.ehu.eus/es/web/ikasleak/berdinen-arteko-tutoretza>

Berdinen arteko tutoretza-programa honen arautegia eskolako web orrian duzue eskuragarri; esteka honen bitartez sar zaitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/lh-eta-gb-gradua-berdinen-arteko-tutoretzak>

### BETEBEHARRAK

Deialdi honetara aurkezteko, Gradu hiru mailako ikaslea izan behar da 2022-2023 ikasturtean eta lehenengo bi mailak tutore izatea eskatuko zaion talde berean eginak izan beharko ditu (euskara edo gaztelania). Horrez gainera, planarekin konpromiso formal bat hartu beharko du, eta prestakuntza-prozesuan parte hartu beharko du (konpromiso-dokumentua sinatu). Prestakuntza irailaren lehenengo egunetan egingo da.

### HAUTAKETA-IRIZPIDEAK ETA -BAREMOA

1.- IKASKETA-ESPEDIENTEA (**50 puntu** lortu arte). Aurkeztutako eskaera guztien artean, Lan Harremanen eta Giza Baliabideen Gradu ikasketa-espeditentearen batez besteko nota kalkulatu da. Gehieneko notari 20 puntu emango zaizkio, eta gainerako eskaerei proportzionalki esleituko zaizkie puntuak.

2.- PRESTAKUNTZA OSAGARRIA (**25 puntu** lortu arte). Komunikazioko eta taldeen dinamikako gaitasunekin zerikusia duen prestakuntza hartuko da kontuan. \**Aurkeztu ziurtagiria*

- Komunikazioarekin, taldeen dinamikarekin, arazoaren ebazpenarekin eta antzekoekin zerikusia duen araututako prestakuntzagatik (beste titulu batzuetako irakasgaiak) puntu bat emango da ECTS kreditu bakoitzeko (edo 25 orduko), gehienez **10 puntu** lortu arte.
- Aisialdiko begirale titulua izateagatik edo taldeak dinamizatzearekin lotutako egiaztatutako esperientziengatik: gehienez ere, **10 puntu**.

- Komunikazioko, taldeen dinamikako, arazoak konpontzeko eta abarretako gaitasunekin zerkusia duen berriazko ez araturiko prestakuntzako 20 orduko: puntu 1, gehienez ere **5 puntu** lortu arte.

3.- ATEAK ZABALTZEKO EGUNETAN PARTE HARTZEA (**15 puntu** lortu arte). Ikastegiak antolatutako jardunaldi horietan parte hartzeagatik, gehienez 15 puntu emango dira.

4.- IKASLEEN ORDEZKARITZA (**10 puntu** lortu arte)

- Ikasleen Kontseiluko ordezkariak: 2 puntu lortu arte. Puntuazio osoa ikasturte bati emango zaio, eta proportzionalki emango zaie aldi laburragoi.
- Unibertsitateko kide anitzeko organoetako ordezkariak: 2 puntu lortu arte. Puntuazio osoa ikasturte bati emango zaio, eta proportzionalki emango zaie aldi laburragoi.
- Ikastegiko kide anitzeko organoetako ordezkariak: 2 puntu lortu arte. Puntuazio osoa ikasturte bati emango zaio, eta proportzionalki emango zaie aldi laburragoi.
- Taldeko ordezkariak: 4 puntu lortu arte. 2 puntu emango dira ikasturte bakoitzeko, eta proportzionalki emango zaie aldi laburragoi.

**2 puntuko meritua dokumentu bidez frogatu beharko dira eskaerarekin batera.**

**3 puntuko meritua, alegatu (adierazi) egin beharko dira eskaera orrian.**

Huatapen-batzordeak baremo horren irizpideak interpretatzeko ahalmena izango du eta haren erabakia apelaezina izango da.

Azken puntuazioan berdinketarik egonez gero, ikasketa-espeditentean puntuaziorik altuena duen pertsonak izango du lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, lehenengo izena eman duenak izango du lehentasuna.

## ESKAERA ETA AUKERAKETA-PROZESUA


Eskaerak ikastegiko idazkaritzara e-postaz zuzendu behar dira **ekainaren 2ra** arte helbide honetara [bi-lh-gl.zentru-idaz@ehu.eus](mailto:bi-lh-gl.zentru-idaz@ehu.eus). Merituak justifikatzeko, jatorrizko dokumentua edo haren kopia bat aurkeztu beharko da, eta jatorrizkoa erakutsi beharko da, kopiarekin parekatzeko eta egiaztatzeko.

**Hautapen Batzordea** honako hauek osatuko dute: Akademi Antolakuntza eta Irakasleen Zuzendariordea eta Lehenengo mailako koordinatzaileak.

Hautatutako pertsonen ebazpena **ekainaren 09an** argitaratuko da. Ebazpen horrek puntuazio-ordenaren arabera ordenatuko ditu deialdira aurkeztutako pertsona guztiak eta hautaketa-baremoaren irizpide bakoitzean lortutako puntuak zehaztuko ditu.

Leioan, 2023ko maiatzaren 05ean

*Javier Cerrato Allende*  
Dekanordea





**2022 – 2023 IKASTURTEAN BERDINEN ARTEKO TUTORETZA-PLANEAN  
PARTE HARTZEKO IKASLEAK HAUTATZEKO DEIALDIA**

<i>PLAZEN KOPURUA: 2</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1, euskarako talderako.</li> <li>• 1, goizeko gaztelaniako talderako.</li> </ul>	
<i>BETEBEHARRAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2021-2022 ikasturtean graduko 3. mailako ikaslea izatea (salbuespenez, 2. mailako ikaslea izatea, baldin eta titulazio-tutoretzan parte hartu badu)</li> <li>• 1. eta 2. mailak tutoretza egitea eskatutako taldean egin izana (gaztelania edo euskara).</li> </ul>	
<i>KONPROMISOAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fomakuntzan parte hartzea kurtsoa hasi aurretik. (Datak zehaztuko dira aurrerago)</li> <li>• Planarekin konpromiso formal bat hartu beharko du, eta prestakuntza-prozesuan parte hartu beharko du.</li> <li>• Ikastegiko Harrera Saioan parte hartzea.</li> <li>• Hileroko, taldeko tutoretza-saio bat egitea koordinatzailearekin adostutakoaren arabera (4-9 saio ikasturtean).</li> <li>• Antolatutako koordinazio-saioetan parte hartzea.</li> <li>• Egindako jardueri buruzko txosten bat egitea, baita jarraipenari eta parte-hartzeari buruzko taula bat ere (amaitutakoan).</li> </ul>	
<i>ESKAERAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• idazkaritzara e-postaz zuzendu behar dira ekainaren 02ra arte helbide honetara <a href="mailto:sec-centro.rri1@ehu.eus">sec-centro.rri1@ehu.eus</a> edota eskuz eman</li> <li>• Ebazpena Ekainaren 09an izango da.</li> </ul>	
<i>HAUTAGAITZAK AUKERATZEKO BAREMOA</i>	<b>IKASKETA-ESPEDIENTEA</b>	<b>50 arte</b>
	<b>PRESTAKUNTZA OSAGARRIA,</b> komunikazioarekin eta taldeen dinamikarekin zerkusia duena: - Zerkusia duen berariazko prestakuntza - Aisialdiko begiralea - Beste ikastaro batzuk	<b>25 arte</b>  15 arte 10 arte 5 arte
	<b>ATEAK ZABALTZEKO EGUNETAN PARTE HARTZEA</b>	<b>15 arte</b>
	<b>IKASLEEN ORDEZKARITZA</b> - <i>Ikasleen Kontseiluko ordezkari izatea</i> - <i>Unibertsitateko kide anitzeko organoetako ordezkari izatea</i> - <i>Ikastegiko kide anitzeko organoetako ordezkari izatea</i> - <i>Taldeko ordezkari izatea</i>	<b>10 arte</b>  2 arte 2 arte 2 arte 4 arte
	<i>Hautapen Batzordea honako hauek osatuko dute: Dekanordea eta programaren koordinatzailea.</i>	
<i>AITORPENA</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3 ECTS kreditu arte.</li> <li>• Unibertsitate-araudian ikasleen ordezkaritzaarako aitortutakoen antzeko eskubideak.</li> </ul>	